

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Bidania-Goiatz*

Aurkibidea

# Udalerria: Bidania-Goiatz

## Sarrera



Gipuzkoako Tolosaldeako herria da. Ofizialki Bidegoian izena du. Udalerria 1964an sortu zen, ordura arte independente ziren Bidania eta Goiatz herriak elkartzean. Bidania eta Goiatz artean kilometro eskasa dago. Gipuzkoako hirigunerik garaiena duen udalerria da Bidania-Goiatz (ia 500 metro). Udalerrri honetan, halaber, probintzian garaierarik handiengan dagoen etxea dago, Ernio inguruko Berazeaga baserria. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean, Errezil; ekialdean, Albiztur; mendebaldean, Errezil eta Beizama; eta, hegoaldean Beizama. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da.

- **Biztanleak:** 534
- **Euskaldunak:** %95,4

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **20**
- Zintak: **21**
- Pasarteak: **89**
- Transkribatutakoak: **15**
- Audioak: **15**
- Bideoak: **47**

## Proiektuak

- Azpeitiko ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gure Nagusiak - Urola Garaia: Mende bat iruditan

## Hizlariak



**Miguel Arizeta Esnaola** (1935)

Bidaniko Ibarganda baserrikoa.

### **Maria Socorro Arizeta Untsain (1936)**



Bidaniko Ibarganda baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Tolosan jaioa eta Errezilen hazia. Hain zuzen ere, Bidanian tropak sartu ziren egunean jaioa omen zen Maria Socorro. Zortzi senidetan laugarrena da. Herriko apaizak maisua etxean eduki zezaten eskatu zieten, eta amak hasiera batean ezezkoa eman bazion ere, baiezkoa eman zuen gerora. Hala, maisu horrek jakin-mina piztu zuen nonbait anai-arrebengan, eta denek izan zuten ikasteko grina. Familian erlijio gizon eta emakume asko ere bazituzten, eta gurasoek beti eman zioten ikasteari garrantzia. Maria Socorro Albizturrera ezkondu zen, okindegira, eta geroztik bertan lan egin izan du beti.

### **Maria Belamendia Galarraga (1927-2017)**



Goiatzeko Eskalona baserrian jaio zen. 11 senidetan laugarrena izanik, neba-arrebak zaindu behar izaten zituen gehienetan. Gerraoste gogorrari aurre egiteko, talo eta esnea ez zuten falta izan. Bizitza guztia lanean eta ingurukoak zaintzen igaro zuen Mariak. Bere senar [Joxe Mendizabale](#)kin batera elkarriketatu genuen 2008. urtean.

### **Andres Beloki Urreta (1927-2016)**



Bidaniako "Perraburu" baserrian jaioa. Umetan inguruko baserri batean morroi ibilia, eta gaztetan basoan zein fabriketan lanean jarduna. Batez ere baserriko lanen, basoko kontuen eta gerrako istorioen inguruan hitz egin digu.

### **Maria Dorronsoro Aramendi (1930)**



Bidaniko Iturburu baserrian jaio zen 1930ean. Gurasoak Albistur ingurukoak ziren, baina Iturburu baserrira etorri ziren bizitzera eta 5 seme-alaba izan zituzten. Mojetan ibili zen Maria eskolan 11 urtera arte. Ume-umetatik lan egin behar izan zuen baserrian eta baserriko bizimoduaren gaineko azalpen ugari ematen ditu.

### **Juan Bautista Egiguren Galarraga (1932)**



1932an jaio zen Goiazko Agerre baserrian. Aita bidaniarra eta ama Santamañakoa (Santa Marina) zituen eta 7 anai-arreba ziren familian. Umetatik baserriko bizimodua eraman izan du; azokan etxeko produktuak salduaz ateratzen zituzten etxerako sosak. 12 urtera arte ibili zen eskolan Goiatzen eta 16rekin hasi zen morroi lanetan Alkizan; gerora Errezilen ere ibili zen. Basoko lanetan ere ibilia da. 26 urterekin Azpeitiko Elosiaga auzora ezkondu eta Martzial Uzin lantegian aritu zen lanean. 3 urte eta gero atzera baserrira bueltatu zen lantegia utzita.



### **Maria Ezeiza Jauregi (1926)**

Goiatzeko Arretxe baserrikoa. Bere senar [Joxe Mari Senperena](#)rekin batera egin zitzaion elkarriketa.

### **Manuel Iraola Goenaga (1926)**



Bidanian jaioa, Eztiola baserrian. Zortzi anai-arrebako sendian hazi zen. 13 urte ingururekin ondoko baserri batera joan zen morroi. Lanari dagokionez, lehenbizi txatar-biltzaile ibili zen, gero obratan lan egin zuen, eta azkenean 23 urte egin zituen Aldundirako "kaminero" lanetan. Bidaniko euskara darabil.

### **Trini Iraola Iraola (1925-2012)**



Ama asteasuarra zuen eta aita bidaniarra. Bera Bidaniako Izagirreberri baserrian jaio zen. Ama minbiziaz hil zitzaion eta bizimodu gogorra izan zuen baserrian. Bidaniara bertara ezkondu zen, eta seme-alabak hazi, hezi eta baserria aurrera ateratzeko lanetan jardun zuen beti.

### **Joxe Manuel Iturria Alberdi (1910-2011)**



Ama Goiazkoa zuen eta aita Bidaniakoa. Bera Bidaniako Ipintza baserrian jaio zen. Hiru senide ziren etxean, eta berak hamar urte betetzerako morroi joan behar izan zuen. Etxe batetik bestera morroi ibili zen.



### **Maria Jauregi Jauregi (1930)**

Bidanian jaioa, Larrañaga baserrian. Bidaniko euskara darabil eta ofizioz jostuna izana da.

### **Fermin Lasa (1917)**



Bidanian jaioa, Zaldibarren baserrian, 10 senideko familia batean. Gazterik hasi zen morroi lanetan Bidaniko baserri batean. Eta horren ostean, Beizaman eta Donostiako baserri batean ere bai. Hantxe harrapatu zuen gerrak. Gerora Zumarragara joan zen bizi izatera, eta hantxe bizi izan da harrezkero, bere emaztearekin eta 6 seme-alabarekin. Bere emaztea (Juana Zinkunegi, Bidania, 1917) ere elkarrizketan agertzen da.

### **Ines Mendia Aramendi (1919)**



Bidaniako Muñaberri baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen eta ama herri bereko Urritzaga baserrikoa. Bost senidetan bigarrena, hiru urterekin hasi zen eskolan, herriko mojek amari hala proposatuta. Hamalau urterekin, neskame joan zen Azpeitiara, umezain. Hamar hilabete egin zituen bertan, gogoz kontra. Etxekoek hamabi hilabete egiteko eskatu bazioten ere, urtea bete aurretik itzuli zen etxera. Hala, larunbateroko tratuari eta etxeko lanei ekin zien.

### **Joxe Mendizabal Olazabal (1919-2014)**



Goiatzeko Mendizabal baserrian jaio zen. 18 urte zituen, gerrak behartuta, baserria utzi behar izan zuenean. Katalunian igaro zituen hiru urte. Bueltatu eta astebete baino gutxiagoren buruan soldaduska egiteko alde egin behar izan zuen berriz. Bere emazte [Maria Belamendia](#)rekin batera elkarrizketatu genuen 2008. urtean.

### **Juan Mujika Esnaola (1922-2013)**



Bidaniako Bengoetxea baserrian jaio zen 1922an eta bertan bizi izan da beti. Bidanian bertan ibili zen eskolan. Ume-umetatik tokatu zitzaion baserriko lanetan aritu beharra. Iturburu baserriko Maria Dorronsororekin ezkondu zen. Baserriko bizimoduaren gaineko azalpen ugari eman zituen emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketan.

### **Pascuala Rezola Letamendia (1922-2013)**



Bidaniako Usarragazarra baserrian jaioa. Bere jaiotetxea ezaguna da, duela 400 urtera arte Gipuzkoako Batzar Bereziak bertan egiten zirelako. Pascualak ez zuen halakorik bizi izan, noski, baina bai gerra garaian bere etxean egiten ziren mitinak. Aitaren heriotza zela eta 18 urterekin egin behar izan zuen baserriaren kargu. Ezkondu eta baserria aurrera atera zuten. Elkarrizketa garaian ere Usarragazarran bizi zen.



### **Joxe Mari Senperena Esnaola (1924-2012)**

Goitzeko Arretxe baserrikoa. [Maria Ezeiza](#) bere emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

### **Juan Senperena Galarraga (1928)**



Goiazko Urrizpe baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Goiazko Izpilla baserrian jaioa. Sei senidetan bosgarrena, lau urtetik sei urtera bitarte ibili zen eskolan. Goiatz herri txikia izanik, goiaztarrek Bidaniarako joera zutela azaldu digu Juanek, baina baita Bidania eta Goiatzen arteko lehiaren inguruko kontuak ere.



### **Tomasa Toledo Ezeiza (1925-2016)**

Bidaniko Usubi baserrian jaio zen 1925ean. 9 ahizpa ziren, bera bosgarrena. Bidaniko euskara darabil.



### **Juan Zinkunegi Elustondo (1939)**

Bidanian jaioa. Lanbide ugaritan lanean aritutakoa: txoferra, armagina, obrak egiten teilatuetan... Bidaniko euskara darabil.

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### **1. Herria, azpiegitura**

#### **1.1. Eztiotetxe etxea**

- **Hizlaria(k)**: Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref**: BID-008/002
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:01:40. **Bukatu**: 00:02:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Reguero, Urtzi
- **Gaia(k):**  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak  
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Eztioletxe etxea Bidaniko iturriaren ondoan zegoen etxe txiki bat zen. Baina bera jaiotakoa Eztiola baserria da.

### Transkripzioa

-Bidanin bai baizan Eztiolaetxe.  
 -Emaztea: Eztiola etxe bai.  
 -Guk ezaututakua. Zuek e...  
 -Emaztea: Ez hok ez...  
 -Herriko iturri bat hor bazan, badao, ba?  
 -Bai iturriya.  
 -Ba al dakizue? Oain granja dago, ta oain e lehengo pareta zaharrak badare, hor etxe txiki bat zan garai baten: Eztiolaetxe. Nik ezautu nun familiya, Eusebio, nere kintakua zan, bakarra zan ta geroztik alde egin zuen... ni gaztia... umek, umek giñala alde ein zuen. Eusebio. Eztiolaetxe bazan, baiño gu Eztiola, bitako bizitza, Eztiola. Oain, beste horren izena, oaindik nonbratu be egongo da, ez dao bukatuta ta.  
 -Emaztea: Guk bai nahi Eztiola.  
 -Aaaaa nahi, nahi zuek ametsetan, oaindikan ezta...

## 2. Baserria

### 2.1. Basolana: egurra txikitu eta lantegietara eraman

- **Hizlaria(k):** Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** BID-008/003
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Reguero, Urtzi
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Zortzi anai-arreba ziren. Umetatik lan egin behar izan zuen baserrian. Labrantzako lanak egin behar izaten zituzten. Ganadua ere bazuten. Gerra denboran, 12 urte ingururekin ondoko baserri batera joan zen morroi. Basoak; lehen pinu gutxi zegoen eta pagadi asko. Egurra txikitu eta lantegietara eramaten zuten.

### Transkripzioa

- Zenbat anai-arreba ziñaten.  
 - E?  
 - Anai-arrebak, zenbat?  
 - Gu zortzi bai.  
 - Eta zu gaztena, erdikoa, zaharrena...?  
 - Ni ezker die bi, azken hirugarrena ni [...], ni ezkeroz beste bi.  
 - Ze hasi ziñaten oso gaztetan lanian ya baserrin?  
 - Bai! Urte asko. Bai basuan ta... bai, bai, bai. Urte asko baserrin. Urtek e... puff... urtek, urtek esateko ba... Hoita bost urte baserrin.

- Ta ze, ze lan egiten zenuen?  
 - Labrantza lana, bason, belazen, lurrian ganadukin...  
 - Ta ze animali edukitzen zenuen?  
 - Ganadua, behiyak eta...  
 - Esnetako?  
 - Bitaa, bitako. Total esnetara ez giñan erori sekula ia. Ba... regular. Regular. Ordun, idik eta danak. Basoa atea ta mendin lanen.  
 - Ta ze egiten zenuen mendin?  
 - Hemen garai baten... jesus... oaiñ dana piñuba ikusten da. Dana pagua zan. Piñurik ez zan hemen, guk ez genun piñuik ezagutu. Beno, ezautu giñun, baiña gutxi, milagro. Dana pagaria zan, pagua ta haritza ta gaztaiña. Hau dana pagariya zan eta gu behin gerra ondorenen ya hamar hamabi urte hamahiru hamalau, ni hamahiru urteko morroi atera nintzen. Baserri hortaxe, hamahiru urtekin. Ta hamalaukin etxea jun ta lau anayak basoa. Bota, arbola txikitu eta ganadukin karretera atea puskautakok. Ordun fabrika asko zan, egurrakin sua eitten zuen, ikatza ´re bai. Elektrikua ez. Egurra, egur asko saltzen zan fabrikata. Ez dakit, tonelako honenbeste, txikituta atea... hola jun zan. Gero bason ibili nintzen. Lau lagun, bost lagun. Danok jornalaren.

## 2.2. Soroko jeneroa

- **Hizlaria(k)**: Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref**: BID-008/004
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:06:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Reguero, Urtzi
- **Gaia(k)**:  
 Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa  
 Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena**: Soroan garia, artoa, arbia... denetarik zuten. Etxerako lain hartzen zuten. Babarruna asko hartzen zen eta batzuetan azokan saltzen zuten babarruna arrautza eta bestelakoekin batera.

### Transkripzioa

-Eta soroa edukiko zenuten?  
 -Bai, bai, beste anayak ta aittak ta haiek danak.  
 -Ta ze edukitzen zenuen?  
 -Gariya ta artua ta arbiya ta bai... labrantza dana.  
 -Ta gero ze egiten zenuen, Tolosako ferian saldu, beste etxetan...?  
 -Perira saltzeko, ba artoa... ez ganadua... etxen kotsumitzen zan. Etxeko gauzia ya... babarruna asko eukitakuan saltzen zan, arrautzak, artua, oilaskok hazi, oilok hazi, artuakin haik hazi, haik saldu, babarruna, hau saldu. Etxen asko behar zan urte guztin ta erosi batez ahal zala. Ahal zala...

## 2.3. Herriko tabernak; basora lanera

- **Hizlaria(k)**: Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi

- **Erref:** BID-008/023
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:46:55. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Reguero, Urtzi
- **Gaia(k):**  
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua  
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak  
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Lehen gaur egun baino taberna gehiago zegoen herrian. Dirurik ez zegoen garai batean. Gaztetan basoan lan eginda 5 duro irabazten zituen eguneko eta argitik argira lan egiten zuten.

### Transkripzioa

-Eta ze giro egoten zen Bidaniko tabernatan?

-Ba tabernak´e oain baiño gehiyo hortxe egon zan bat, Xapatero horiek, Pakitak eta taberna.

- Emazteak: Herriko taberna.

- Berena!

- Emaztea: A! Berena?

- [...] taberna, oain´e hor egongo da mostradora. Pakitak bere taberna oraiñ´e, hura kendu? Keba! Batez! Bi, herrikua hiru, Toki Alai, lau taberna kontinua. Ta gero horik itxi in zien ta Zaldibarren´e irikita egon zan, urte asko ez zittun euki. Ez zan, ez zan. Salida haundik ez zan hemendik eta diruik ez zan. Mendira basora jun ta etxea etorri gabe ibillitakua naiz ni. Hantxe nagusikin bost sei mutil egunian bost duro, argitik argira e! Ordua, zenbat ordu? Egunian bost duron ibillitakua naiz e! Nora? Fabrikan? Ez zan hemendikan iñor moitzen, bazian baiño gutxi. Ez zala diruik, ez zala fabrikan jornalik, ez zala, ez zeola fabrikan jornalik, diruik ez zeola kontu hori, ta horrea fabrika ez [...] ez iñora. Basora, ta ni ez nitzan atea, Irati mendia-ta ni ez nitzan atea, ni hemen ibilli nintzen, Irati mendia jun zian asko.

## 3. Ohiturak eta bizimodua

### 3.1. Eskolan gaztelaniaz; errespetua nagusiei

- **Hizlaria(k):** Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** BID-008/005
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:06:25. **Bukatu:** 00:09:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Reguero, Urtzi
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola  
Euskara » Euskararen egoera  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena:** Sei-zazpi urterekin hasi zen eskolan eta 11 urtera arte ibili zen, gerra hasi zen arte. Gauza gutxi ikasi zuten eskolan. Gerraostean Fidalgo abizeneko irakasle kanpotarra zuten. Dena gaztelaniaz ikasten zuten, baina lanak izaten zituzten ulertzen, ez zekiten gaztelaniaz eta. Zigorrak ere izaten zituzten. Lehen errespetu handia zitzaien irakasleei, gurasoei eta apaizari.

### Transkripzioa

-Eskola joaten zinaten?

-Hamaika urtekin... zazpi bat urtekin, zazpi seikin hasi giñen ta hamaika urtekin erretira. Gerra hasi zanen hamar urte, hamar urtekin erretiratu nitzan handikan.

-Ze ikasten zenuen?

-Ze ikasi? Oooo... Gutxi gutxi gutxi... [...] ikusten da... berrogei bat mutil gutxiñeko, hasi sei urtetikan ta 12 urte arte, maisu batek ez [dao danak hazteik]. Gregorio bizi izan bazan esango zizuen. Hura partikularren ibili zan ta gero Tolosaa ta abar, baiño hor ez zeon ikasteik. Eta gerra ondorenen, Fidalgo apellidua zun maisua zan —ez zat ahazten— kastellanua, euskeraz ez zun hitz eitten uzten ya, ta erderaz ez genekiun! Ta leziyua "De aquí a aquí, ta, ta, tantas filas" esanez. Hura buruz hari ematen, Jesus, ze esate gendun ez genion ta arrastoik, ezin sartu ez, alperrik, alperrik.

-Eta euskeraz egin ezker eskolan?

-Euskeraz ez ziguen uzten. Ahal zan gutxiña.

-Eta zigortu edo?

-Ja! "Pon la mano! Redoble", hau miñakin "Redoble", hemen hezurran "Redoble, venga" ta alde eitten hasten baziñan hura altxa ta etorri ta benga! Egurra! Oi oi oi. Egur haundiya. Oain eskola gustora juten die, seiñale due e. Oaingo umiak hor ta hemen daren bezela umek ez, e! Isilik e! Eeeee! Et et et, isilik e! [...]kiñ e ixilik e. Hok e, maldiziyua igual berak. Et et et, hola ez, e! Hori ez. Hori ez! Apaiza baldin bazan, "Ave Maria purisima!" hark "Sin pecado concebida" kontestatuko zun ta aurrera. Kontestatzen? Zeni? Ez ez ez, iñori ez! Aittari edo amari enkargua, ta etxian paliza, gutxi ez, e! Maisuk, apaizak berdin.

### 3.2. Ikasitako apurra gau-eskolan partikular ikasitakoa

- **Hizlaria(k)**: Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref**: BID-008/008
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:16:10. **Bukatu**: 00:18:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Reguero, Urtzi
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- **Laburpena**: Dotrina ondo ikasi zuen, baina bestela eskolan gauza gutxi. Dotrina ikasi beharrean beste zenbait gauza ikasi balitu baliagarriagoak izango zitzaizkiola uste du. Biderkatzeko taula ondo ikasi zuen. 18 urterekin gau-eskolan ibili ziren partikular medikuaren emaztearekin. Irakasle ona zen.

### Transkripzioa

Nik esan izandu det, dotriña, en cambio, ikasi nun e! Oraziyok, eliza kontuk ikasi nittun e, hoik bai! Baiño esan izandu det, dana ez dao esateik, ez due ondo hartuko ta, nik dotriña ikasi nun hain mehe... nahiago nuke ikasi banu metro koadro baten zenbat azulejo tantos metros ikasi banu! Ez nun ikixi hori! Bate serbittu ez zian eskola ikasi nun: dotriña. El único tabla, gaur´e baakit nik tabla, tabla bai e! Tabla dakit ahazte ez dana. Baiño eskolan metro koadro baten hainbeste ladrillu, ez gendun ikixi. Lekturak itten

genduzen, lekturak, gero´re banun nik liburua, geografia, aritmetika ta zera zittun gehio´re harek historia sagrada´re bai, ta hura zan. Leitu eitten gendun, baiño ez ordean, ez ordean... "Pan", ez genekiun "pan" hura zer zanik. Ta gure eskola ezin ezin, ta gu, ni bezela bestek, danak, ez gendun ikasi. Guk eskola ikasi gendun, 18 urte, gau eskolaa. Gauetan maestra, maestra ona zan, medikun andria, oain seroretzia, han bizi zian medikua bere andriakin, andria maestra zan. Ez zun eskola ematen e, baiño guri bai, partikular, horrela bai. "Harek ze esan nahi du?", "Hori hola ta hola da ta hori hola ta hola. Hori hola ta hola da ta hori hola ta hola". Han ikesi gendun gero. Edadia´re bai, e? 18 urte, 17kin hasita behintzat. 3 urtetan behintzat ibilli ginen, hantxe eskola ikasi gendun, harek esplikatuta, hantxe jantzi giñan piskat. Gaiñentzen gure eskola horixe zan, ta Gregorio hura´re Tolosaa partikular. Baiño hua ere, beira zu, ez zan beti juten e. Frontoien ta ... bazitun harek e... danak tankeran pixkat.

### 3.3. Bidaniko festak gaur baino ilusio handiagoz

- **Hizlaria(k):** Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** BID-008/011
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:20:25. **Bukatu:** 00:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Reguero, Urtzi
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa  
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Lehen giro hobea egoten zen Bidaniko festetan, ilusioz bizi zutelako. Urtean behin bakarrik izaten zen soinua eta horren zain egoten ziren. Jaietako jatekoa: garbantzua eta arroz-esnea.

#### Transkripzioa

-Ta Bidaniko festak zer moduzkoak izaten ziren?

-Festak? Festak gaur baiño zeagok, ambiente haundigok. Gaur... baakizu, lehen urtian behin, soiñua´re urtian behin, ta soiñuba ekartze zan. Jaietako partikular ta etzan kotxerik e, ezta salidaik´e ez. Nola jun ber zenun? Oiñez. Ta festak bazun bere zera bat, herriko festak´e bazun ambiente bat. Kanpoko osaba-izobak etorri ta... Postria arroz con leche, urte guztin hua, garbantzua, ta hori izaten zan otorduan, oillua... Festak zun holako zera bat, gaiñentzen... Gaur ze jan ez dakiu, ze edan ez dakiu, nora jun ez dakizu. Gaur, gaur nik ez det billatzen ilusiyoik.

### 3.4. Bidaniko eliza Muñoak egina

- **Hizlaria(k):** Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** BID-008/019
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:38:30. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Reguero, Urtzi
- **Gaia(k):**  
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- **Laburpena:** Bidaniko eliza Muñoa izeneko gizon batek egin omen zuen bere poltsikotik ordainduta. Lehengo eliza zaharra hilerri inguruan omen zegoen. Miserikordia ere bazegoen Bidanian eta Muñoa jarri omen zituen bertan mojak, gaixoak zaintzeko. Muñotarrak nazionalistak ziren eta gerra-garaian alde egin zuten herritik.

### Transkripzioa

Hemen Muñoan historiya kontatu al dik iñork? Bidaniko elizana, ez al dizue kontatu? Eliza hori gizon batek bere kontura ein zun e! Bere boltsikutik! Muñoa. Hor eliza zaharra, han kanposantua badago, ba? Hemen, moja, apaiz etxiak ikusten dituzu, gero Bengoetxe... zuek ikuste dezue han, han etxe berriya, illun bat badago ba, etxe berri-berriya inda oaiñ? Belazia oain ebaki berriya badago ba oaiñ? Kanposantua han dago, lehengua, bueno, kanposantua han dao... eliza lehengua han dago, eliza eta palaziya, bakizue zein da Lizasoaiñ baakizue...? Hua, Lizasoaiñ, aberatsa eta Muñoa hori hemen ez dakit nun biziko zan, Amerikan partida haundiya in emen zun-ta. Ta han eliza berriya ein nahi zuen eta han Muñoa horri ez ondo iruditzen han ta Lizasoaiñek begiya hartu ta baietz, lehengo izaera ta lehengo zerara, hemen beste honek ezetz. Auzitan bukatu zuen ta Muñoa horrek irabazi zun tokiya hua're ez zala hua're ona, baiña hemen ein zun eliza, oaiñ ein du eliza hau, betelanak ein ta zera haundik. Hori, Muñoak — nik ezautu nun— arkitektua beria berekin ta dana konpletua zan. Moja etxek... Miserikordi etxia Bidanin'e badao e! Hori ez dizue iñok esango! Moja etxia baakizue zein dan? Baakizu? Hori Miserikordi etxia da, e! Ta hor mojak jarri zittun Muñoak jornalakin gaixo zerenai gaua pasatzeko mojak, basarritan gaixo bat badao —gizon edatetu bat edo gaztia igual— gaua han pasatzeko ta laguntzeko jarri zittun Muñoak hor mojak. Zenbat ez dakit. Ta zahar etxia hori.

## 4. Familia eta harremanak

### 4.1. Eskolatik "piper" egitearren jasotako zigorra

- **Hizlaria(k):** Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** BID-008/007
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:11:40. **Bukatu:** 00:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Reguero, Urtzi
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak  
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena:** Batzuetan, eskolara joan beharrean, txori-habi bila ibiltzen ziren auzokoa eta biak. Konfiantza hartu eta sarritan hasi ziren ihes egiten. Azkenean, elizpean pilotan ari zirela Joxe Beltza mikeletoa etorri zitzaien bila. Berak ihes egitea lortu zuen; baina, hurrengo egunean, irakaslea etxera etorri zitzaion bila. Lehenbizi etxean eta gero eskolan zigor gogorra jaso zuen.

### Transkripzioa

Ikasi? Ikasi? Juteko gogoik ez! Ni ta beste bizitzakua, Antonio, kintok, kintokok giñan. Hala, eskolan ezin ba ta txori habik bakizu nola [...] dian oaiñ, txori habin billa ibiltzen giñen, eskola jun gabe. Etxe aurreko hortan artua zan ta loratan, etxetik kalea ez zan ikusten, sukaldetik, behintzat. Pareta hor, ta hortikan etorri ta hortikan gora piñudiya alde eginda, han gora. Piñudin ze egongo dek? Lau bost bat egun eskola jun gabe, hor ibilli, besterik ez, hor ibilli. Baiño hasi giñen konfiantza hartzen ta pelota etorri bik, eskola jun gabe pelotan ta mikeletia, Joxe Beltza esaten ziyen, hemen, zeran, egoten zian mikeletek, caja de ahorrosen ta hor "Kataleju" Adrian "Kataleju" bizi da, hor bizi da beste etxe baten "Kataleju" esate diena gaur, Adrianenea etxe horrek zun izena, oraiñ hala izango dan ez dakit, hor e bai Mikeletek. Joxe Beltza hori hareago, Ostalatzeko Joxe bestia, Ipintzakua re. Pelotan ari giñala, hor etortze zaizkigu abixu eman zizken, atzetik sartu elizan azpiko frontoi horta ta eraso iyo fabrika korrika, nik alde egin niyoen ta Anttonio harrapatu zuen, moja etxetik, hor harrapatu zuen. Nik, alde egin niyen nik, ez niñuen harrapatu. Hura eraman zuen maisuenea ta maisuk pasaria eman, esan dit eman zizkiola edarrak! Orain [...] bakarrik, ba ni ez ba, hor baso hortan gordetze nintzen ta hor [...]. Etxen lehen txitak egoten zian ba txabolan? Harkaitz hartan, orain ez dago, baiño han belar biltzen han aittona, aitta ta ni´re laguntzen belarra biltzen ta [...] txintxo. Maisua, Fidalgo hori, andriak euskeraz eitten zun pixka bat, maistra zan, goiko etxen bizi zian haik. Hala, Beteluko Juan Migel ta, oaiñ ez dakit, hor haruzkalden, zeok Betelu, hangokin ondo ibiltzen zien, hara jun ta handik esnia ekarri ta eitten zittuen ba, hor bidia ta banoa ta ikusi dittut nik Pepita, neska zaharrena, ta bestia ze izen zun neskak? Bi neskak, ahaztu zat. Gure etxe aldea, haruzkaldetikan maisua ta maistra ta aiba! Parea etorri zan ta kieto haik ta aittonai erderaz, bate ez zekin, baiña enteditu zien haik, maistrak euskeraz asko ez baiña benga ez nintzela eskola juten. Ta han, larren, ni. Beno, etxera etorri nintzanen [...] batzuk zizkien. Hurrungo goizen amak eskolaa, hamar urte, bederatzi. Ta eskola pareta Parisko etxe pareta [...], ikusi nun nik, bandera atea zun maisu horrek, bandera ateratzen zan, bandera española. Ta maisua etorri zan bea ´re bidea, ta hor kontsultatu zuen ta juteko, juteko eskola juteko. Jarri nitzen ni eserita nere tokin hura etorri zanen hartu nittunak! Egurrakin e hartu nittunak! Gure eskolia hura izan zan, gure eskola.

#### 4.2. Umetako jolasak: mutilak pilotan eta neskak "kurkuluxetan"

- **Hizlaria(k):** Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** BID-008/009
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:19:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Reguero, Urtzi
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Pilotan aritzen ziren elizpean, baina bestelako jolas gutxi egiten zuten. Neskek "kurkuluxekin" (tortolosak) jolasten zuten.

### Transkripzioa

-Ta pelotaz aparte, zertan jolasten ziñaten?

-Guk pelotan batez. Hor elizan azpiko arkupepetan zeuden ba... frontoie ta

bate ez da hoi.

-Baiño aparte ze beste jolas zeneukaten?

-Beste jolasa? Batez hemen.

-Pelotan bakarrik jolasten ziñaten? Ta kanikekin?

-Neskak bai. Kurkuluxa, arkume hanka hezurreko harekin. Bai kurkuluxa.

Bota ta a pune ta a karne eta hua bota ta buelta eman ez eta... baiño guk ez mutillak, guk ez gendun. Guk hemen ez gendun jostaillurik batez, batez.

Miseri bat. Batez, batez.

### 4.3. Muñoatarrak etxejabe handiak

- **Hizlaria(k)**: Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref**: BID-008/022
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:45:20. **Bukatu**: 00:46:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Reguero, Urtzi
- **Gaia(k)**:  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Muñoak etxe ugari zituen eta leku askotan zituen maizterrak. Haien dirua nondik etorritakoa izan zitekeen ulertzeko adibidea jartzen du.

#### Transkripzioa

-Muñoak maizterrak zeuzkan, ez, Muñoak?

-Emaztea: Muñoak bai, maizterrak, gu´re hala giñen ta...

-Bai! Muñoak? Berrogei etxe igual maizter, gehio igual.

-Emaztea: Zizurkillen e bazun etxia harek.

-Nun ez harek! Amerikanuak baiño zera haundigua emen zun ta... Horrek terrenotan honen andriaandik lehendikan [...] herrin bat formatuta ta handikan diru asko ibilitako [...]. Ta nik aitzera badet diru asko indako gizon hoik nolaz eindako diruak ote dittuen: erreka, gaiñez eitten du ba, ebi asko indakon ta zikiña ura. Diru hori´re zikiñetikan eindakua izeten ote dan. Ur asko errekan, ebi asko einda, gaiñezka, ta zikiña. Ur garbitik negozio txikigua, gizonak´e diru hori [...] dabillen garaien eindako diruk izeten diala aitzera hala dittut nik.

## 5. Aisia

### 5.1. Inguruetako festa eta erromeriak

- **Hizlaria(k)**: Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref**: BID-008/013
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:22:50. **Bukatu**: 00:25:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Reguero, Urtzi
- **Gaia(k)**:  
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara  
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: Ez ziren asko irteten herritik. Herriko batek kamioia ekarri zuenean Beizamara joaten ziren harekin, ordainduta. Urkizuko festetara

ere joaten ziren; hara Beizamara baino jende alaiagaoa joaten omen zen. Inguruetan erromeria garrantzitsuena Iturriozkoa zen. Zelatunera (Herniora) ere joaten ziren irailean. Inguruetako beste festa batzuk.

### Transkripzioa

-Hementxe danak, hemendik Beizamaa oiñez. Zaharberrik kamiona bazun ta hua hasi zan kamionakin eman ta ekarri itten, baiño diru truke ta dirua kontuz! Dirua kontuz, hori falta danak. Ta, gaiñentzen, festak gu ibilitakok Urkizun San Pedrotan, Beizaman baiño hobia. Urkizua jendia [...] juten zan Beizama baiño ta hemen ta han zan festaik jende ambiente handiyena: Itturrioz. Nun dan baakizue? Itturrioz. Hor, Aia aldeko jende hori ta abar jende... dantzaako-ta jende haundiya, Iturrioz. Gaiñentzen, herri txiki hootako festak? Ttunttuna jo ta tanborra ta... motx motx, oso motx.

-Eta Zelatunera ez zineten joaten?

-Bai, Zelatunen lau jai inportantek. Ez dakit lehenbizikua...

-Emaztea: Setienbren.

-Bai baiño...

-Emaztea: Ta agostun´e bai.

-Beizamakok izan e, Beizamakua San Bartolometan duela jai urten behin, herrik... jaiak zittuen herrik. Beizamakok soiñu jotzaille bat edo bi beraien kontura eamango zittuen, herriko jendia preparatuta jungo zan dana, ahal zuenak, igande baten, ta hurrungo eguna, hurrungo igandia nik ez dakit zein ta Albizturkua ta hemengua´re bai, ta Goiazkua bestia. Lau herri, lau jai. Illuntzen erretira danak handikan ta... jende asko bai, ze egualdi dan, txarrakin´e kuidau.

## 6. Politika

### 6.1. Gerra-osteko egoera; garia eta artoa entregatu beharra

- **Hizlaria(k):** Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** BID-008/014
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Reguero, Urtzi
- **Gaia(k):**  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera  
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Gerra-ondorenean ogirik ez zegoen. Baserrian beti izaten zen jateko gehiago, baina gerra-osteko egoera nahiko txarra zen, garia eta artoa entregatu egin behar izaten ziren eta. Kartila batean markatzen zen zenbat kantitate ehotzeko baimena zeukaten eta hortik atzerakoa estraperloan eho behar izaten zuten. Errazionamenduko opilak. Estraperloan ekarritako zaku-irinak 1.000 pezeta balio zituen eta basoan lau zuhaitz handi botatzea 25 pezeta ordaintzen zen.

### Transkripzioa

-Eta ze egoera egondu zan gerra zibil garaian Bidanin?

-Gerra garaian? Nola?

-Ze egoera egon zen?

-Egoera? Gerra ondorenen ogiik´e ez, ogiik´e ez. Basarrin beti sortu zan, baakizu, behiyak eta esnia eta abar, patata pixkat, dana. Baiña ogia

hartutakok, nik ezagututakok [ondo ezautu gendun] ondorengua. Gerra bukau zanen hamahiru urte nittun ta, hamarrekin hasi ta hamahirukin bukau zan. Ta etorri zan, labrantza [...] honenbeste metro quadro gariya einda ta herriko gizonak [...] zuen, bai, honenbeste kilo gari. Ta ze famili da? Ta lau ogi edo bost edo... Beno hoi [...] kontuk in ta horiek etxen nahiko dizkiye 300, 400. Ba, 600 hor herrira, garik, entrega. Ta [estaduko] preziyua, kanpoa danak garik. Artoa ´re tanto herrira ta geatzen zaizkitzu... errotaa. Esan det mila kilo tasatu ta 600 entregatu eiten [dituzu], kendu iten dizkitzue ta 400 zuretzako. Kartilla bat ematen dizue 400 kilo gariyantzako. Ta artua gutxiyo [...] beste berrehun bostehun, kartilla. Errotaiyak zenbat [...]go dittun, menos, menos, baijua, menos, bukatu da, bete da, gehiyo dakazu ta hori iyotzeko ordena ez dauka errotaiyak, estraperlua. Ta hark itten zun ta erdiya kentze zizun. Ta halare konformatu in ber, konforme, ez daukek nun iyoiik eta, ta ogiya beltza, pastel horren kolorekua, opillak. Baiño ez zuen zakurrak jaten hua e! Hemengua danak eamango zuen. Etortzen zan iriñakin, hemen panaderok itten zittun iriñ harekin ogiik ez zeon itteik, opillak personako bana o biña o ez dakit ze itten zittuen. Hua jaso in ber ziñuzen, e. Ta preziyua ez dakit, [...preziyon] ta... Ogiya jateik ez. Basarrin esaten dana, nola-hala artua ta estraperlua gehixeo ta han ´e errotaiyak asko kendu... Ba! Konforme. Beti basarriñ talua ta abar ta... basarriñ pasable, baiño kuidau! Diruik ez, ez zeon ta hartzeik ´e ez zeon. Zaku iriña, gure etxen, gariyan iriña 80 kilo milla pezta. Haik estraperlon etorritakuak. Altzoko Pello Txiki zan hor negoziyon ibiltze zan bat, gizona, Pello Txiki, hark ekartzen zun milla peztan basuan lau tronko arbolak, lau haundi metro kubiko bat eitteko bost duron, lau partetan moztu bost duron ta milla pezta zaku iriña. Zenbat lan in ber dun hura kubritzeko ta hori ekartze bazizun. Lana... ezin, ezin, ezin diruik atea. Hoi paatu ta sobratu ezin ein, baiño lana in ber. Bestalde batez.

## 6.2. Muñoatarren inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** BID-008/020
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:41:45. **Bukatu:** 00:43:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Reguero, Urtzi
- **Gaia(k):**
  - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
  - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Muñoatarren inguruko kontuak. Nazionalistak ziren eta gerra denboran herritik alde egin zuten semeek, baina aita harrapatu egin zuten. Inguruko baserri gehienetan maizterrak ziren eta Muñoa hori zen etxejabea. Gerra denboran harrapatu zutenean, balore guztiak kendu zizkioten eta geroago enkantean jarri. Muñoatarrek euren sepultura dute elizan.

### Transkripzioa

-Gero, nazionalista auskalo ze maillatan. Bi mutil zien semek haenak. Gu pelotan, mutill haundik ikuste giñuzen ziala ta gerra momentu hartan alde in zuen haik. Ta aitta harrapau zuen, zaharra, baiño hua harrapatu zuen, Muñoa. Ta hari, gu haien maizterrak giñen ta... horrek etxe asko, berrogeita hamar maizter igual, basarrik, hemen ta, nun ez! Gaintzan ta Errezilen ta...

nun ez harek! Haziendak danak kendu zizkion. Kartzeleatu in zuen ta [ez dakit zenbat] diru kendu ziyen Muñoa horri, ez dakit. Ta haziendak dana kendu ziyon, balorek. Ta handikan zenbat urtea? Ba handikan 20 urtera iya... bai 20 urte gertu izango zien, danak subastatu zittun haziendak edo gobernuuk edo... haziendak. Ta danak salduta han geldittu zien. Haik Frantziñ, aitta´re... Eliza hortan, bere andrian sepultura bada hor suelon han sartuba ta bea´re, hezurak hara ekarri ta han sartu die, elizan barrun. Sartu ta ezkerretaa. Altaretxe bat [e badao], bere sepultura [bezela da], Muñoa horrek beak inda, beak beetzako zeatutakua. Ta bi seme hoik Agirre famosua bada ba, presidentia garai baten izandakua, Agirre, haren alabakin, bestia zeifnenakin ezkondukok.

## 7. Natura

### 7.1. Erbitara elurretan

- **Hizlaria(k):** Iraola Goenaga, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ensunza, Ariane - Reguero, Urtzi
- **Erref:** BID-008/027
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:52:40. **Bukatu:** 00:57:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Reguero, Urtzi
- **Gaia(k):**
  - Natura » Fauna
  - Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Erbi asko zen inguruetan eta joaten ziren ehizara, erbitara, elurra zegoenean. Azeriak gehitu zirenean gutxitu ziren erbiak. Azeriak oso usaimen ona omen du. Elurretako arrastoak. Azeriak zepoan harrapatzen zituzten. Harrapatuta izan zuen beste piztia baten (iputatxa) inguruko kontuak.

### Transkripzioa

-Eta ehizara joaten zineten, eskopeta hartuta?

-Bai, bai... ibiltzen giñen, ibiltzen giñen elurra eitten zunen, ez giñen [...] sekula. Erbitan. Hemen erbi asko zan, asko, asko erbiya hemen. Erbitan, jesus! Han Erniyon, lainua dao, hortik, hortik gora zenbat bider elurretan. Bota´re, bota geñizkin batzuk, bai, bastante botatzen gendun. Urte baten zazpitaiño rekor haundiya in genun hua e! Bai. Hiru lagunek. Geo azariya ugaldutzen ari zan ta ugaldu zan ta horrek galdu zun e. Zuk larriya botagatik, gatxapua esaten zaio txikiyai, gatxapua. Txikik [nundik], ze in zuen haik? Ta haik linpio. Azayak ufatu haundiya du, luzia, oillagor zakurrak ´e hoge metro, oillagorra usaitzen du ta oaindik haundigua du azaiyak. Ta horrek gauian ikusten bai bestek e, gauen harrapatzen ditu, ta haundiya´re bai harrapatu ezkeo horrek. Elurretan erbik salto handixegua du, holakoxe bat gehiyo, mahai hau beten erbik eta bai bestia´re gertu, elurretan. Arrastok, arrastok ikusita gare ondo. Ondo ikusita gare. Baiño erbiya... Ta aitzera det galtze emen dula igual erbik ese itten du ta bestiak atajuz han harrapatze emen dula. Azayak... azayak asko bota ditteu guk. Bota edo... zepoan ta harrapatu nik. Nik zepoan... prohibido? Bai, lizne jende hoi ta dana, asko harrapatuta ta kaiyolan eukita, asko. Ni denunziatu ezkeo... uf! Zepokin liznek. Liznia banun, hurak ze izen zun ez dakit, txikiya zan, holaxe, txiki bat, beltza, bel-beltza, ipurtatxa, ipurteatxa eo holako izen bat. Hor amerikanok esan zien "Bai, iputatxa badek eta holakon bat izango huan". Hua kaiyolan jarrita... kaletikan harek "iiii" ta aittuko zendun e! [Ez

non zirikatzen], kaletikan aittuko zuela. geo bildurtuta neoni, "aittu ingo diye" ta. Etaatzen zun txistu bat kaiola arrimatzen baziñen...! Jana ematen niyon ta saria ondo ixte ez zala izango zan edo... —egun batetik bestera oillasko [hezurrak-eta] jaten zittun harek e! Bai!— ta egun baten falta. Han saria nunbait pixkat obligatu ta harek alde in zien, alde in zien. Pena haundia harek eman zian! Bi liznek, arra-emek, harrapatuta kaiyolan batea eukitakok dittut. Ta gure etxen mutillak kejatu in zian gauen, haik burrukan, kanpotik katu hotsa "miau" ta "mii" ta "mau". Ume bat in in zun bertan, bai, denboaik gabe... in zun.

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Senar emazteak, biak baserritarrak (BID-001/001)**

Juana Maria Lasa Zinkunegik, Fermin Lasaren emazteak bere burua aurkezten du. Baserrikoak ziren biak. Herritarren izenak aipatzen ditu emazteak. Orduan Donostiatik jendea joaten zen Bidanira uda pasatzera, bertako palaziora. Gero umezurtzentzako etxe bihurtu zuten palazio hau 1936ean.

### **2. Biak senide ugariko familiakoak (BID-001/002)**

Zortzi anaia zituen Ferminek. Ama zena bidaniarra zen, 10 urte zituela hil zitzaion eta aita geratu zen haurrekin. Fermin anaietan seigarrena da. Bere aita pontekoaren ama joan zen baserrira eta hark lagundu zion aitari umeak eta etxeko lanak eramaten. Juana sei senideko familiakoa da, lau mutil eta bi neskez osatutakoa. Labaka baserrikoa.

### **3. Bidanian hiru eskola, mojena eta nazionalak (BID-001/003)**

Eskola etxetik gertu zuten, neskak mojetara joaten ziren, komentura. Bidanian hiru eskola zeuden, bata mojena eta beste biak nazionalak, mutilenak.

### **4. Erromeriak Trintxeran (BID-001/005)**

Gaztetan neskame joan zen Juana 14 urterekin. Erromeriara Bidaniko Trintxerara joaten ziren eta han, Juanaren lehengusua zen Tomas Zialtzetak ahoko soinuaz jarri ohi zuen festa. Zelatunera ere ia jaiero joan ohi ziren.

### **5. Neskame Tolosara (BID-001/006)**

Juana Tolosara joan zen neskame, emakume alargun baten etxean eta arropa dendan egoten zen. Diru pixka bategatik edozer egin ohi zuten, lixiba "jotzera" ere errekarra joaten ziren neguko ur hotzetara. Tolosara amarekin jaisten zen astoan, ama azokara joaten baitzen saltzera. Orduan ez zen autobusik. 9 urte egin zituen neskame.

### **6. Gerra garaian Bidaniko jauregian neskame (BID-001/007)**

Gerra hasi zenean, Juana Bidaniko jauregian zegoen neskame, gotzainaren etxean. Gogoan ditu orduko pasadizoak, nazionalak etxera sartu zitzaizkienekoa, etab.

## **7. Fermin morroi Bidanian, Beizaman eta Donostian (BID-001/008)**

Fermin gerra hasi aurretik morroi egon zen Bidanian, Beizaman eta Donostian. Donostian zegoela handik joan zen soldadu.

## **8. Morroi zegoela, anaia hil (BID-001/009)**

Morroi zegoela Donostian ganadutegian lan egiten zuen, Polloeko hilerriaren ondoko baserri batean. Beizaman udan egon zen morroi. Bigarren urterako anaia gaixotu eta hil egin zitzaion.

## **9. Soldadutza Zaragozan (BID-001/014)**

Soldadutza Zaragozan egin zuen gerra aurretik. Donostian morroi egon zeneko kontuak kontatzen ditu, beldurra zen nagusi garai hartan. Errepublikanoen pasadizoak.

## **10. Soldadutzan zegoela, anaia hil (BID-001/015)**

Soldadutzan hiru urte pasa zituen 1936tik 39ra. Sei anaietatik lau gazteenak ibili ziren soldadutzan. Anaien soldadutza tokiak aipatzen ditu. Anaia nola hil zitzaion soldadutzan zegoela eta orduko kontuak.

## **11. Nobiotan bi urtez eta ondoren ezkondu (BID-001/016)**

Juana bitarte horretan Santanderrera eraman nahi izan zuen lan egiten zuen etxeko nagusiak, baina ez zen joan. Fermin eta bere anaiak ezagunak ziren herrian eta halaxe ezagutu zuen Juanak. 27 urte zituen emazteak ezkondu zirenean. Nobiotan 2 urte egin zituzten eta Tolosara joaten ziren zinemara eta paseatzera. Orduan ez zegoen gaurko libertaterik.

## **12. Fermin Zumarragara lanera fundiziora (BID-001/017)**

Ezkondu aurretik Fermin Zumarragara joan zen lanera. Ezagun bat joan zitzaion Bidanira, langileak behar zituztela eta lana eskaintzera. Fundizioan lan egiten zuen eta zortzi pezeta ordaintzen zizkioten hamabi orduz lana eginda. Orduko lanaren inguruko azalpenak.

## **13. Ezkondu ondoren, Zumarragara bizitzera (BID-001/018)**

Jaietan izaten zuen Juana ikusteko aukera, aste osoan lanean aritzen zen. Ezkondu eta Zumarragara joan ziren, 62 urtez egon dira elkarrekin.

## **14. Juanak erdaraz, ulertzeko adina (BID-001/019)**

Juanak erdaraz ulertzeko adina bazekien baina hizketan ez zen gehiegi moldatzen ez baitzuen eskola handirik izan. Igande arratsaldeetan ere eskolara joaten zen. Lehengo eta oraingo bizimoduaren arteko ezberdintasunak aipatzen dituzte. Fermin apopilo egon zen Urretxuko taberna batean. Orduko gertaerak.

## **15. Arantzazun ezkondu eta Iruñea eta Zaragozara bidaian (BID-001/025)**

Arantzazun ezkondu ziren eta gurasoak Santama&ntilde;ara gaua pasatzera eraman eta beraiek Iru&ntilde;era joan ziren. San Ferminak bukatuak ziren beraiek joan zirenerako. Handik Zaragozara joan ziren. Paraje haietako jateko kontuak aipatzen ditu. Santanderrera ere joan ziren bisitan, han osaba jesuita

bizi zuen Ferminen emazteak. Obispoa eta neskamea ere han bizi ziren. Urrutira joan arren, Ferminen lagun batzuekin egon ziren bertan.

#### **16. Gerra osteko bizimodu gogorra (BID-013/002)**

Baserrian ganadua zeukaten baino halere morroi edo neskame joan behar izaten zuten. Andres morroi joan zen 12 urte zituenean. Gerra ondorengo urte txarrak gogora ekartzen ditu. Lana asko egin behar izaten zuten.

#### **17. Morroien bizia (BID-013/003)**

Morroji bezala baserriko lanak egiten zituen. Behiak zituzten, esnetakoak. Taloa jaten zuten.

#### **18. Morroi bezala lanean (BID-013/004)**

Artoa eta garia egiten zituzten eta beti zegoen lana soroan. Mendi guztiak garbi egoten ziren. Elurra egiten zuenerako egurra txikitu behar izaten zuten. Beste morroi bat ere bazen etxean.

#### **19. Ezkontza kanpotik jaiotako umeak (BID-013/007)**

Ezkondutako gabekoek Villabonako Fraisorora eramaten zituzten umeak. Han dirua ordaindu behar izaten zen. Batzuk umeak saldu ere egiten omen zituzten.

#### **20. Gerra hasierako oroimenak (BID-013/009)**

Gerra hasi zenean, 9 urte zituen Andresek. Igandea zenez, etxeokoak mezara joan ziren goizean. Aita ukuiluan zebilen eta handik etorri zen gertatutakoaren berri emanez.

#### **21. Hernioko frontea gerra garaian (BID-013/010)**

Lehenengo tiroak Berastegin hasi ziren. Gero, Hernio aldetik gorriak pasa ziren eta beraien etxea tartean gelditzen zen. Beraien etxeko pegoen atzean gordetzen ziren soldaduak. Beste baserri batean gordeta egon behar izan zuten egun batzuetan.

#### **22. Gerra garaiko giroa baserrietan (BID-013/011)**

Bi anaia gerran ibili ziren. Gizonak arriskuan zeuden eta baserrietan ezkutatuta egoten ziren. Leioetan koltxoak jartzen zituzten babesteko. Bi arreba Tolosara eta Zaldibarrera joan ziren.

#### **23. Tiro egin zioten belar bila joan zen batean (BID-013/012)**

Etxean zegoena soldaduei eman behar izaten zitzairen. Etxe ondoko belarra etxera ekartzeko, arriskuan ibiltzen ziren. Halako batean, tiro egin zioten nafarrek. Belar sortari esker libratu zen. Bala ez zuten bilatu.

#### **24. Baserri inguruan, soldaduek bi bizkaitar hil zituzten (BID-013/013)**

Behin, inguruko baserri batera zihoala, soldaduekin egin zuen topo. Soldaduek bi lagun zeramatzen hiltzeko asmotan. Bi haiek bizkaitarrak ziren eta badaki non hil zituzten.

## **25. Gerra garaiko oroitzapenak (BID-013/014)**

Gauean menditik soldaduak jaisten ziren baserrira. Egunez gordeta ibiltzen ziren. Gorrien eta nafarren arteko borroka gogoratzen ditu. Francoren aurka borrokatzen zutenak bizkaitarrak izaten zirela dio. Bertakoak ere joan ziren gerrara. Bi edo hiru anaia ziren etxeetan, bat gerrara joateaz libratzen zen.

## **26. Gernikako bonbardaketaren oroitzapenak (BID-013/015)**

Eibar eta Elorrioren gerra gogorra izan zen. Etengabe hegazkinak pasatzen ziren eguna gogoan du. Gernikako bonbardaketa izan zenean, entzun ere egin omen zuten. Gernika txikitu zutela berehala jakin zuten Zeruko Argia aldizkariaren bitartez.

## **27. Gerra garaiko bizipenak (BID-013/016)**

Andresen aitak udaletxetik egunkaria ekarri zuen eta ama negarrez hasi zen Gernikakoa jakindakoan. Beste fronte gogorra Ebron izan zen. Hernion ere fronte gogorra izan zen. Ezkutatu egin behar izaten zuten, eta baserriko lanak eten egin zituzten 3 edo 4 hilabetez.

## **28. Gosea denean, edozer jan daiteke (BID-013/017)**

Gosea zutenez, edozer jaten zuten, baita belarra ere. Batata ere jaten zuten. Ama Tolosara edo Azpeitira eroatera joaten zenean, batatak erosten zituen; eta, txarrak izan arren, gustura jaten zituzten. Mendiko errota batean irina egiten zuten eta harekin taloa. Esnea ere izaten zuten. Inguruko baserrietakoei esnea eramaten zien. Gosea pasa zuten.

## **29. Gerra ondorengo gabezia (BID-013/018)**

Gerra bukatu ondoren garai gogorrenak iritsi ziren. Franco salatzen du. Herriari etxeko janariak entregatu behar izaten zituztenez gosea pasa zuten. Horregatik morroi joan behar izan zuen.

## **30. Iratira lanera 17 urte bete ondoren (BID-013/019)**

Hamazazpi urte zituela Tolosatik Roncalesa hartuta Iratira joan zen. Batzuetan Andoainen Leizaolako trena hartuta joaten ziren. Iratin lan asko egin zuen. Bertako nagusiaz hitz egiten du.

## **31. Iratiko kablean egurra biltzen (BID-013/020)**

Argitik argirako lana izaten zuten bertan. Iratin izandako bizimodua deskribatzen du. Jende asko biltzen zen bertan lanean. Bederatzi hilabete jarraian pasa zituen bertan. Itzuli zenean oinez etorri zen Tolosatik, dirua ez gastatzeagatik. Etxean sartu zenean pozez jaso zuten. Kearen usaina ekartzen omen zuten.

## **32. Basoko lanean diru asko irabazten zen (BID-013/021)**

Dirua arroparen artean gordeta ekartzen zuen, Iruñean kobratu ondoren. Egurra kablean jaisten zuten. Soldata 8 edo 9 duro eguneko izaten zen. Bertan dirurik gastatzen ez zutenez dena gorde egiten zuten. Diru asko biltzen zuten horrela eta ama ezin sinetsi gelditu zen.

### **33. Kableko lana ikusgarria zen (BID-013/022)**

Iratiko lana nolakoa zen azaltzen du. Lana guztia aizkorarekin egiten zuten. Iratin biderik ez zegoela dio. Ez ziren herrira jaisten. Kablea nolakoa zen azaltzen du. Kablea nola muntatzen zen gazteei erakustea gustatuko litzaioke.

### **34. Iratiko basoetan kablean lanean (BID-013/024)**

Argitik argira lanean ibiltzen ziren Iratin. Aizkoraz mozten zituzten zuhaitzak. Trontza ere erabiltzen zuten. Beste batzuk idiekin eta mandoekin ibitzen ziren kargatzen. Kablea nolakoa zen azaltzen du. Ikusgarria eta polita dela dio. Garai batean enborrak ur gainean jaisten zituzten. Errepublikara garaian muntatu omen zuten lehenengo kablea.

### **35. Iratiko kablean izandako abenturak (BID-013/025)**

Kate batekin enborrak lotzen zituzten. Kablea ikusi gabe zaila da azaltzea. Kablea aberiatzen bazen mandoekin bera jaitsi behar izaten zuten. Kablean zebiltzan garaiko anekdotak kontatzen ditu. Telefonoa bertan izaten zuten abisuak pasatzeko.

### **36. Errekara eroritako mandoa jan zuten (BID-013/026)**

Iratin erreka handiak dira eta bertan garbitzen ziren. Xaboa izaten zuten. Behin mando bat errekan behera erori zenekoa kontatzen du. Janaria izaten zuten baina haragi gutxi. Hamasei ordu ere egiten zuten lan.

### **37. Basoan lan egiteko arropa eskasak (BID-013/028)**

Arropa txarra eramaten zuten. Abarkak eta mantarrak janzen zituzten. Arropak gauean txabolako sutan lehortzen zituzten. Bonbatxoak eramaten zituzten. Alkandora eta jertse zaharrak ere eramaten zituzten. Hotza egiten zuenean ardi larrua jartzen zuten bizkarrean. Txapela ere eramaten zuten eta Iparraldetik ekarritako plastikozko txapela gainetik.

### **38. Iratin lanean euskaldunak ziren gehienak (BID-013/029)**

Txabolan 90 pertsona biltzen ziren. Beraiek eraikitzen zuten txabola. Bost urte pasa zituen horrelako lanetan. Langile guztiak euskaldunak izaten ziren. Ikazkinak Aragoikoak ziren.

### **39. Basoan lanean zebiltzanean lo gutxi egiten zuten (BID-013/030)**

Basoko lanean ibiltzen zirenak gazteak ziren. Lo gutxi egiten zuten, 6 ordu gauero eta siesta pixka bat bazkal ondoan. Enkargatuak esnatzailea jartzen zuen eta ondoren garrasika beste guztiak esnatzen zituen.

### **40. Iratiko kablean gertatutako anekdotak (BID-013/031)**

Kablean gertatutako anekdotak kontatzen ditu. Behin kablea eten zitzaizanean arazoak izan zituzten. Ibilbide luzea egin behar izan zuen Zurizaraino mandoak hartuta.

### **41. Artzain frantses batekin mendian galduta (BID-013/032)**

Zurizatik bueltan zihoala laino itxia sartu zitzaion et galduta ibili zen artzain frantses batek lagundu bitartean. Gau hartako abenturak kontatzen ditu.

#### **42. Iratiko basoetan lanean (BID-013/034)**

Basoan lanean zebiltzanean hika hitz egiten zuten beti. Andresek ekarritako trokolekin kablea konpondu eta berriro lanean hasi ziren. Handik aurrera gutxiago kargatzen zuten kablea. Enkargatuek moztutakoaren arabera ehunekoa irabazten zuten.

#### **43. Basoko lanean ez zuten asegururik (BID-013/035)**

Basoan lanean ibiltzen zirenean ez zuten asegururik izaten. Iparraldean ibiltzen zirenak berriz bai eta horri esker gaur egun pentsioa kobratzen dute.

#### **44. Basoa utzi eta herrira lanera (BID-013/037)**

Arrebek etxera bueltatzeko esaten zioten eta mendia utzi egin zuen. Lantegi batean hasi zen lanean. Abarka eta galtzerdiekin joaten ziren lanera. Lan gogorra egin behar izaten zuen.

#### **45. Jai arratsaldetan nesken bila (BID-013/040)**

Neskatan jai arratsaldeetan ibiltzen ziren. Motorra zeukanez hainbat lekuetara joaten zen. Neskak etxera eramaten zituen baina inori muxurik eman gabe.

#### **46. Neskak bilatzen (BID-013/041)**

Erromerietara ere joaten ziren. Dantzan ez ziren ibiltzen. Neskak ez ziren tabernetan ibiltzen. Andregaiia izan zuenean dantzaren bat egin zuen. Emaztearen argazkia erakusten du eta ederra zela dio.

#### **47. Tetuango kartzelan (BID-013/044)**

Lehen ez zen kanpotarrik ikusten. Afrikan soldadu egon zeneko anekdotak kontatzen ditu. Tetuanen kartzelan eduki zuten guardia gaizki egiteagatik. Isilka bertako emakume zaintzaile batekin harremanak eduki zituzten.

#### **48. Etxeetan zerbitzatzen (BID-014/002)**

Baserrian jaio eta hazi, eta bertatik gutxi atera zen. Neskame bidali zuten, eta gaixoturik itzuli behar izan zuen. Aldameneko baserri bateko amak flebitis harrapatu, eta bi urtez mugitu gabe egon behar izan zuen. Pascuala etxe hartara eraman zuten familia hartaz arduratzera. Etxeko andrea sendatu zenean, Tolosara joan zen zerbitzatzera. Laster itzuli behar izan zuen etxera, anaia gerran hil ondoren aita gaixotu zitzaielako.

#### **49. Gerra hasi zenean, Andoainen neskame zegoen (BID-014/004)**

13 urte zituela, gerra hasi zen. Garai hartan, Andoainen zegoen zerbitzatzen. Etxeko balkoitik begira egoten zen. Etxekoek galdu egin zela pentsatu zuten. Soldaduak Donostia aldetik etortzen ziren. Kanoiak eta kamioiak ere ikusi zituen. Egun batzuk pasa ondoren, etxera eraman zuten Andoaindik. Soldaduak etxeetan janari bila ibiltzen ziren. Pascualak ez zuen beldurrik pasa.

#### **50. Eskola utzi eta laster neskame joan zen (BID-014/005)**

13 urte zituenean eskola utzi zuen. Oporrak pasa ondoren koltxa bat egin nahi zuela esan zion amari. Orduan neskame joateko proposamena iritsi zitzaion, eta bertan behera utzi behar izan zuen koltxaren proiektua.

### **51. Neskameek egin beharreko lanak (BID-014/006)**

Neskame bezala zein lana izaten zituen kontatzen du: marmitak eraman, etxeetan esnea partitu, belarretara, egurrera... Baserri hartan bost ume zituzten. Andoaingo Cordoba baserrian lana egin zuen.

### **52. Neskameen lanak (BID-014/007)**

Umeak zaindu behar izaten zituen. Sukaldeko lanetan ere ibiltzen zen. Neskamea etxeko bezala tratatzen zuten. Baserrietako neskameak eta etxe aberatsetako neskameak ez zeuden egoera berean.

### **53. Bidaniko eskolan mojak erakusten zuten (BID-014/008)**

Bidaniko eskolan mojak zeuden. Batek dotrina bakarrik erakusten zien. Goizeko moja, berriz, erdalduna zen, eta hark beste gauza batzuk erakusten zizkien. Erdaraz moldatzen ikasi zuten. Arratsaldean eskulanak izaten zituzten.

### **54. Ume txikiak nola zaintzen zituzten (BID-014/009)**

Ume txikiak janzteko faja deitzen zuten oihal bat erabiltzen zen. Etxean hamar ume zituzten, eta bizilagunek beste hamar. Sukaldean urik ez zuten eta kanpotik eltze handi batean ekarri behar izaten zuten, umea zintzilik zeramatela. Bizilagunekin konfiantzako harremana zuten.

### **55. Eskulanen erakusketa Bidaniko eskolan (BID-014/010)**

Eskolan erdaraz ikasten zuten. Sartu eta lehen lana umeen faja egiten ikastea izaten zen. Galtzerdiak egiten ere ikasi zuten. Urte amaieran erakusketa bat antolatzen zuten, eskulan haiek herriari erakusteko. Kakorraz lanak, gurutze puntua, bodekeak, parpailak eta hainbat gauza ikasi zituzten. Eskulan horiek egiten jakitea oso garrantzitsua dela iruditzen zaio. Orain, berriz, dena bota eta berria ekartzen dute.

### **56. Hainbat arropa etxean egiten zituzten (BID-014/011)**

Galtzerdiak eta jertseak beraiek egiten zituzten. Alkandorak, azpiko gonak eta abar egiten ere ikasi zuten. Maindireak egiten zituzten eta mahai-zapiak ere bai. Telak eta hariak Tolosatik ekartzen zituzten.

### **57. Dotrina, komunioa, prozesioak (BID-014/013)**

Apaizarengana dotrina ikastera joaten ziren eta komunioa prestatzera. Jaunartzea egiteko jantziak ez ziren oraingoak bezalakoak. Komunioa egin ondoren, ez zen bazkari handirik egiten. 11 urte bete ondoren komunio handia egiten zuten.

### **58. Dotrina aldatu egin zuten (BID-014/014)**

Pascualaren garaian dotrina aldatu egin zen. Dotrina lehenengo ikasten zuenari apaizak tela bat oparituko ziola agindu zien. Dotrina erabat aldatu zen gurasoen garaitik. Orain berriz dena aldatuta dago.

### **59. Umea jaio aurretik bataioa prestatzen zuten (BID-014/015)**

Umeak jaio bezain azkar bataiatu egin behar izaten zen, hiltzen bazen linbora joan ez zedin. Orain gauzak asko aldatu dira. Umea jaio aurretik bataioa prestatuta izaten zuten.

### **60. Haurdunaldiak eta erditzeak (BID-014/016)**

Haurdun egon arren ez ziren medikuarengana joaten. Erditzerakoan medikua etortzen zitzairen. Erditzean izandako arazoak kontatzen ditu. Umea erditu eta berehala, ur bedeinkatuarekin medikuak berak bataiatu zuen.

### **61. Medikuari ume gehiago ez ekartzeko zer egin galdetu zioten (BID-014/019)**

Familia handia zirela eta medikuari zer egin behar zen galdetzen zioten, baina ez zien erakusten.

### **62. Garai batean dena belarrekin sendatzen zuten (BID-014/021)**

Enplastuak egiten zituena Tolosan zegoen. Garai haietan dena sendabelarrekin konpontzen zuten.

### **63. Hilerokoaren inguruko arazoak (BID-014/027)**

Hilerokoarekin izandako arazoak kontatzen ditu. Mina izan arren lanera joan behar izaten zuten. Gaia horiek ezkutuan eramaten ziren. Pascualaren amaren garaian ez omen zuten ezer erabiltzen gonaren azpitik. Hilerokoarekin zeuden emakumeak txerria hil ondoren egin beharreko lanetarako aproposak ez zirela esaten zuten.

### **64. Neskame Pasaian (BID-014/028)**

Hemezortzi urte zituela, baserriaren kargua hartzea tokatu zitzaion. Pascuala Pasaiaiko baserri batean ere egon zen lanean. Bertan se&ntilde;orito bat zegoen, eta hari goizero gosaria ohera eraman behar izaten zioten. Bi neskame eta morroi bat bizi ziren etxean. Aita hil ondoren, etxera itzuli zen baserriaz arduratzeraz.

### **65. Pasaiaiko etxeko jabeari se&ntilde;orito esaten zioten (BID-014/030)**

Aita hil ondoren Pascuala etxera itzuli zen, eta bere ordeaz ahizpa joan zen Pasaiaiko etxera neskame bezala. Etxe hartako se&ntilde;oritoa fragata kapitaina omen zen; gizon atsegina eta oso jakituna.

### **66. Senarra izango zuenarekin nola hasi zen harremanetan (BID-014/032)**

Senarra Asteasukoa zuen. Gerratik itzuli zela esan ziotenean pozik jarri zen. Elkarrekin ateratzen nola hasi ziren kontatzen du. Mutilak gurasorik ez zituen. Eskolarik gabekoa zen.

### **67. Umetan jolas eta eskola gutxi eta lana asko (BID-016/001)**

Jostailurik ez zuten. Jokoak bestelakoak ziren. Apustuak egiten zituzten, ea nork irabaziko. Denbora libre gutxi izaten zuten. Soroko lanak egin behar izaten ziren umetatik. Eskolara ere gutxitan joaten ziren. Abereekin batzuetan beldurra ere pasatzen zuten, eta horregatik kaletarrak ziruditela esaten zien.

## **68. Amak anaiari bertso-paperak erosten zizkion Tolosan larunbatero (BID-016/003)**

Anaia beti kantuan edo txistuka ibiltzen zen. Kanta euskaldunak abesten zituen. Askotan bertsoan ibiltzen zen. Tolosatik bertso-paperak ekartzen zizkion amak larunbatetan. Behin amonak bertsoak ekarriko zizkiola esan, eta elizako kantuak ekarri zizkion. Bertso haiek gero buruz ikasten zituen.

## **69. Neguan amonak ipuinak kontatzen zizkien (BID-016/005)**

Amonak neguan, artoa zuritzen ari zirenean, ipuinak kontatzen zizkien. Asmakizunetara ere jolasten ziren.

## **70. Umeei asko abesten zitzairen (BID-016/013)**

Makina bat sehaska kanta abesten zituzten. Lana egin ahal izateko, umeak lo arazi behar izaten ziren. Asko kantatzen zitzairen. Haur kotxerik ez zuten, umeak eramateko ahal bezala moldatzen ziren.

## **71. Aspaldiko kantuak gogoratzen (BID-016/014)**

Lehenko kanta zaharrak gogoratzen dituzte.

## **72. Umetan dendaritara jolasten (BID-016/018)**

Umetan dendetara jolastea asko gustatzen zitzairen. Korrika ibiltzea ere gustuko zuten.

## **73. Elizara gustura joaten ziren (BID-016/019)**

Elizara nobenara joaten ziren. Bertan kantatu egiten zuten. Elizara gustura joaten ziren. Abestiak latinez izaten ziren. Arratsaldean bezperetara joaten ziren.

## **74. "Charlatan" herriko plazan saltzen (BID-016/020)**

Plazan "charlatan" esaten zioten gizon bat egoten zen, gauzak saltzen. Hari begira denbora pasatzen zuten.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-05-08*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkarte  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com